

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko apirilaren 5a

*

Ez da giro

Iruñeko kaleetan hamaika istilu ikusitakoak gara. Dagoeneko ez da inor izutzen asteburuetako gora-beherengatik. Joan den asteko gertaerek, baina, zalaparta handia eragin dute, batez ere izan zituzten ondorioengatik: auto kontzesionario bat eta bi villavesa kiskalita, langileak ere erreta, atxiloketak katean, espetxeratzeak... Giroa bero-bero, jarrerak muturreratzen ari diren sentsazioa. Alde batekoek pezetatan bakarrik neurtzen dituzte kaleko biolentziaren ondorioak, jatorrian egon daitezkeen arrazoiei erreparatu gabe. Beste muturrean, berriz, egoera honetan borroka modu guztiak zilegi direla eta ondorioak, latzak izanagatik ere, onartzeko prest daudela diotenak dauzkagu. Eta bi muturren artean, kezka eta etsipen puntu bat.



Zubian barna

BINGEN AMADOZ



Ostiral santuko usoa ez da jadanik morez jantzen. Santuak estaltzeko egunean izanik ere udaberriari begira dago. Ondorioz, epeltasun goxoa sumatzen du gertu eta kalera bilutsik atera da, ohizko moduan. Martxoan jasan dituen euri zaparradek bustirik utzi dizkiote hegala eta astun xamar dabil batetik bestera, indar handirik gabe.

Teilatutik behera aski ongi moldatzen da. Gorantza nekez.

Kontrapasako ehiztariek botatako tiro galdu batek betean harrapatu eta zangoa odolean izan du denbora batez. Badirudi hobetzen doakiola zauria eta herrenka baina badabil usoa.

Negu hontan elurte handia izan

da eta Iruñerriko bere kabia hozturik dago oraindik ere. Izan ere, elurra ez zen bi egunetan urtu eta lasto eskasia dagoenez larri-larri ibili da han-hemenka materialak bere bizitokira ekartzen edota beste kabietan berotasuna bilatzen.

Oraingoan, eguzki printzak ikusi orduko, hor ageri da usoa zulotik kanpora berehala, goitik datorren ontasuna ahalik eta gehien profitatu nahian.

Hala ere, ezin izan du oraindik hezetasunaren zama gainera kendu eta goiko gure berogailuak lan gehiago egin beharko dio bizkar gainean lehorraren arintasuna noizbait berreskuratzeko.

Zeren usoa, azken finean, hegan egitea dauka gustoko. Askatasunean mugitzea da bere joera naturala, ez oso urrunera joateko, ez baita bera sobera migratzailea. Uso hiritarra da eta itsas-ertzearekin edota barnekaldearekin, hiriburuarekin, jende-multzorekin gertatzen gertatzen du gure beheko mundu bitxialdera begira egon.

Goitik beharbada errexago aukeratu luke dagokion tokia. Aldeko dituen gizakiak eta etsaiak non dauden zehazteko parada izan dezake. Hobeki jakin luke non pausatu, non zabaldu bere murmurio gozoak eta norengandik jaso horrenbeste behar duen bizitasunadorea. X

Ostiral santuko usoa

XX GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Urantzia: Los Escarabajos taldeak kontzertua eskainiko du bihar, gaueko 12.00etan, Cosoko plazan.

Gares: Fundamental aretoan Extremoduro taldeak kontzertua eskainiko du gaur.

Agoitz: Arkupe dantzalekuan Egan taldeak joko du du gaur, gauerdiko 2.00etan. Toki eta ordu berean baina bihar Eclipse taldeak kontzertua eskainiko du.

Burlata: Black Rose aretoan Syndrome del Norte taldeak kontzertua eskainiko du asteartean, arratsaldeko 8.30etan.

ZINEMA

Tafalla: Cinema Españolen Haurrentzako Zinema Zikloa antolatuta dute. Bihar *Casper* izanen da ikusgai, arratsaldeko 6.00etan, eta etzi, arratsaldeko 3.45etan. Sarrerak 100 pezeta balio du.

ANTZERKIA

Iruñea: Kollins Clown taldeak *Vikings* bere obra taularatuko du etzi, arratsaldeko 6.00etan. Sarrera 350 pezeta kostako da.

Cabanillas: Iruña Pequeño Teatro antzerki taldeak *La soper sin dueño* antzeztuko du datorren asteartean, Kultur Etxean, gaueko 9.00etan.

ERAKUSKETAK

Iruñea: Planetarioan, National Geographic elkartearen 107. urtea ospatzen dela-eta, argazki erakusketa dago ikusgai apirilaren 26a bitartean. Ordutegia hau da: asteartetik ostiralera 17.30etatik 21.00etara. Larunbat, igande eta jaiegunetan 11.30etatik 13.30etara.

Zizur Nagusia: Begoña Rastrillaren margoak ikusgai dira Kultur Etxean, datorren igandera arte. Astelehenetik igandera bitartean dago zabalik.

Iruñea: Jose Guerreroren lanak daude ikusteko maiatzaren 19a bitartean. Erakusketa astelehenetan izan ezik ikus daiteke, egun horretan museoa itxita baitago.

Iruñea: Gotorlekuko Bolborategi aretoan 80ko hamarkadako Espainiako arteari buruzko erakusketa dago zabalik datorren igandera arte, apirilak 14. Aretoa lanegunetan irekitzen dute 18.00etatik 20.30etara, eta jaiegunetan 12.00etatik 14.00etara.

IKASTAROA

Iruñea: Natur zientziak jorratzen dituen Gorosti taldeak sendaberrak ezagutzeko eta erabiltzeko ikastaroa antolatuta du. Ikastaroak apiril, maiatz eta ekainean egingen dira asteartean eta ostegunetan, 9.30etatik 13.30etara. Izena eman edo informazio gehiago lortu nahi duenak helbide honetara jo behar du: Calderria kalea 34, behe.

nafarkronika

Jon Alonso


Nafarroako gauza traszendentalak

Aitorrek lagun nire hazkena izain den konetan, Nafarroari buruz benetan kezkatzen nauten irur aferen gainean hitz egingo derauzuet, moztarok alde batera utzi. Lehena, eta zalantzipaik printzipalena, arda da. Oraingo Nafarroa jatorrizko labela duen baltz hori, nai eta nai ez enbutuaz sartzen ari zaizkigun hori berori. (Parentesia: egia al do kantuko ardo gorri nappa gaur baltza letxe zautzen deuna dala?) Gauze ezto txarraren izaitia.

Ea, egia erraterat etxok txarra. Biño nik aldarrikatu gura juat Errioxakoa nahiago dudala, obia eta merkeagoa delako, eta txantajetza, koakzietza eta are ezarpen antidemokratikotza yoten dudala gero eta thaberna zein jathetxe gehiagok eramaten duten jokabiria, zeina baita Nafarroako ardorik baizik ez edukitxia, edo eta, Errioxakorik edukitzekotan, garestienak edukitxia, edo eta, ora- indik ere deitoragarri eta okaztagarriagoa dena, Errioxako ardo arruntak edukitzea eta ogoi urteko erreserbak bailiran kobratzea. Vigarrena da kusirik ezen Telepamplona bezalako bodrio bat badagoela, bodrioa ez ezik ortera, kutre, zahar urrineko, gandorragerri kutsukoa eta aldeanoa badena -badena dena da, bistan denez-, eta ikusirik ezen lehen errandako guztia gitxi balitzu ilegal ere badela, nire harridura adierazotea autoritate konpetenteak ez dizulako iltzez eta giltzez ixten, aretago aipatu autoritatea hoin diligentea eta eskubizkorra azaltzen denean bertze medio batzutt itxi, ito, zanpatu, galarazi, debekatu

edo suntsitzeko orduan.

Eta hirugarrena galdera xumea biño ez da, orain arte inor irarkolako letrez izparringian jarten ausartu ez dena baina guztion buruban aspaldixkotikan dabilena: ziertoa al da Nafarroako Hizkuntz Politikako Goi Karguetarako sarrera eduki ahal izateko behar beharrezkoa dela baldintza batzuek betetzia, eta baldintza ezinbestekoa dela euskaraz oso oso gaizki mintzatu, aditu, izkiriatu eta leitzea?



asteko pertsonaiak



Felix Taberna

Nafarroako IUko koordinatzaile nagusia

■ Felix Taberna IUko Nafarroako koordinatzaile nagusia bere karguan berretsi zuen joan den larunbatean Iruñean egindako IV. batzarra. 148 ordezkari bildu ziren egun osoan zehar, Nafarroako zuzendaritzaren lana aztertu, zuzendaritza berria aukeratu eta etorkizunerako estrategia politikoa zehazteko. IUk jarraipenaren aldeko apustua egin zuen larunbateko batzarrean; eta ordezkarien % 80k babesa eman zioten orain arteko zuzendaritza taldeari datozen hiru urteetarako. Felix Tabernak goizean aurkeztu zuen kudeaketa txostena eta 92 boto jaso zituen alde, 12 aurka, eta 17 abstentzio izan ziren. Aurkako botoak Pablo Lorenteren sektoreak emandakoak izan ziren.



Luis Ibero

Nafarroako Gobernuako kontseilaria

■ Luis Ibero Nafarroko Herrilan, Garraio eta Komunikabideetarako kontseilariak iragarri du, Nafarroan EITBren kaptazioa legeztatzeke Nafarroako presidentearen eta Euskal Autonomi Elkartearen lehendakariaren arteko sinadura atzeratu egingen dela. Nafarroako Parlamentuak baietza eman zion aipatu akordioari eta, orain, bi gobernuburu sinadura bakarrik falta da indarrean sartzeko. Ardanzak eta Otanok apirilaren 17an sinatu behar zuten akordioa, baina badirudi arazo ekonomikoak direla medio atzeratu egingen dela. EITB Foru Komunitatean behar den bezala hartzeak 900 milioiko inbertsioa ekarriko luke (39 milioi libera) eta zeinek ordaindu behar duen erabaki gabe dago.

ahaztu gabe!



IKASTAROA

Iruñea: Urtxintxa Aisialdiko Eskolak ingurugiro heziketari buruzko ikastaroa antolatu du aisiako begirale eta hezitzaileentzat. Datorren asteartean hasi eta igandean bukatuko da. Oso-tara, 26 orduko ikastaroa izanen da. Asteartetik ostiralera bitartean 19.00etatik 21.30etara izanen da, eta larunbatean eta igandean, berriz, goizean 10.00etatik 14.00etara bitartean eta arratsandean 16.00etatik 20.00etara bitartean.

Ikastaroa ingurugiro heziketa izanen du gai bakarra. Zehazki, ingurugiro heziketaren definizioa, helburuak eta aisiarekin duen erlazioa jpratuko dira. Ikastaroa batez ere praktikoa izanen da eta partehartzaileek natura interpretatzen eta ibilbideak egiten ikasiko dute Iruñean eta Alaizko mendizerran. Tailerrak eta jokoak ere egingen dituzte partehartzaileek. Naturara hurbiltzen den jendeak ingurugiroa errespetatu eta zaindu dezan bultzatu nahi du Urtxintxa Aisialdiko Eskolak ikastaro honen bitartez.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobeta* ilu goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Itzitz

Urtegiaren aurkako kanpaldia abian

Asteazkenean hasi eta astelehenera bitartean izanen dira ekitaldiak.

Azken urteetan bezala, Itoizko urtegiaren aurkako kanpaldia antolatu dute aurten ere. Asteazkenean hasi zen Itoitzen eta astelehenera bukatuko da. Bitartean, Itoizko urtegiaren proiektua eta eragingo dituen kalteak ezagutarazteko eta obrak gelditzeko eskatzeko hamaika ekitaldi prestatu dituzte. Ekologistek eta Koordinakundeak ezezik, sindikatuek eta alderdi politikoek ere hartu dute parte aurtengo ekitaldian.

Irene Arrizurieta / Iruñea

ITOIZKO urtegiaren aurkako kanpainaren barruan, Iratiko Bailaran egiten ari den proiektuaren kontrako talde ekologistek —LANE, Landazuria, Ugatza, Ongaitz eta Kaizkak— eta Itoizko Koordinakundeak beste kanpaldi bat antolatu dute Aste Santurako Itoitzen. Antolatzaileen irudiko, inoiz baino arrazoi gehiago daude «Iratí bizi baten alde apustua egiteko eta urtegia gelditzeko eskatzeko, eta horren lekuko garbiena da berriki Entzutegi Nazionalak emandako auto histori-koa».

Gaurko ekitaldiak goizeko hamarretan hasiko dira. Artxubako mendizerran dagoen Hegaztien-tzako Babesgune Berezia bisitatu dute, baita Gaztelu erreserba naturala ere. Erreserba hau, hain zuzen, hesiz inguratuko dute arratsaldeko lauretatik aurrera. Ondoren, zazpitan, Espainiako Estatuan ura nola kudeatzen den azaltzeko hitzaldia izanen da. Gauean, Nahi ta Na-



Itoizko urtegiaren aurkako kanpaldia astelehenera arte iraungo du.

ARTXIBOKOA

hieztu eta Berri Txarrak taldeek kontzertua eskainiko dute.

Bihar, goizeko hamaketan, urtegiaren obraren inguruan ibilbidea egingen dute autoz eta bizikletaz kanpaldiko partehartzaileek. Arratsaldean, berriz, urtegiaren aurkako ekitaldia egingen dute. Itoiztik obraren ingurura abiatu eta Entzutegi Nazionalaren azken autoa emango diete bertakoei. Ondoren, arratsaldeko zazpitan, mahaingurua egingen dute Naturguneen Babeserako Legearen aldaketari buruz. Ondotik, gaupasa. Igandean atseden hartu ondoren, astelehena izanen da kanpaldiko azken eguna.

Itoizko urtegia ilegala dela oi-

narriztat hartuz, hiru helburu nagusi ditu kanpaldiaren ekitaldi honek. Lehenik eta behin, partehartzaileari proiektua eta honek sortu dituen kalteak erakutsi nahi dizkio. Ildo beretik, Entzutegi Nazionalak emandako azken bi autoak direla eta sortutako iritzi desberdinak mahaingaineratuko dira. Hau guztia lantzeko eta eztabaidatzeko antolatu dira urtegiari buruzko hitzaldiak, erakusketak, mendiko martxak eta bideo emanaldiak.

Bigarrenik, orain arte etengabe egin duten moduan, urtegiaren lanak gelditzeko exijitu gura dute. Ekitaldi honetan, besteetan ez bezala, ekologistak ez diren

beste erakunde batzuk hurbilduko dira kanpaldira: sindikatuak eta alderdi politikoak, besteak beste. Itoitzen izanen dira CCOO, LAB eta ESK sindikatuak eta HB, Partidu Komunista, Batzarre eta Partidu Karlista alderdi politikoak.

Espainiako Entzutegi Nazionalak joan den urteko irailaren 29an kaleratu zuen sententziak Itoizko urtegiaren proiektua ilegalizatzen jo eta gero, inoiz baino jende gehiago biltzea espero dute urtegiaren aurkako kanpaldiko antolatzaileek. Obrak gelditzeko oihua inoiz baino indartsuagoa izanen da aurtengo ekitaldian. x

Aras

Aurten Pasiorik ez

■ Hamalau urtez antzeztu dute Arasko biztanleek

Erredakzioa / Iruñea

HAMALAU urtez jarraian egin eta gero, aurtengo Ostiral Santuan ez da Pasiorik izanen Arasen. Herriko 250 biztanleek bertan behera uztea erabaki dute. Alde batetik, ez da azken hamalau urteetan Pasioa antzeztu duten herritarren ordezkorik, eta, bestetik, zaila da herriaren antzeztapenak eragiten dituen gastuei aurre egitea. Azken hau izan da aurtengo Pasioa bertan behera uzteko arrazoi nagusia.

Arasko Pasioa 1982. urtean antzeztu zuten lehen aldiz. Hasiarako aktoreak herriko dantza taldeko kideak ziren, 16 urte inguruko gazteak guztiak. Lehen

urteetako antzeztapenetan 70 kide inguru biltzen ziren. Arasko Pasioak gero eta jende gehiago erakarri zuen urtetik urtera, eta azken antzeztapenetan 5.000 lagun inguru biltzen ziren herrian. Aktoreak, berriz, gutxitu egin ziren: hasierako 70ak 40 izan ziren azken urteetan.

Pasioaren aurrekontua ere ez zen nolana hika. Principe de Vianak 120.000 pezeta eman izan dizkio gehienez Udalari antzeztapena antolatzeko, baina aurrekontua 800.000 pezetakoa ere izan da behin baino gehiagotan. Halako dirutza ordaindu ahal izateko zailtasun anitz izan ditu Arasko Udalak eta aurten ezin izan du antolatu. x

Barañain

Apirilean kultura nagusi

■ Hil osorako egitaraua antolatu du Udalak

Erredakzioa / Iruñea

BARAÑAINGO UDALAK kultur egitaraua zabala antolatu du apirilerako. Erakusketak, lehiaketak eta antzerkia izanen dira protagonista herrian datozen asteetan. Hilaren 27ra bitartean izango ditugu ekitaldiak.

Hasteko, gaur amaituko da festak iragarriko dituen kartela aukeratzeko Udalak antolatu lehiaketan parte hartzeko epea. Buka herriko taldeak antolatu du lehiaketa. Haurren artean ere egingen da kartel lehiaketa. Txikienek hilaren 22ra arte izanen dute lanak aurkezteko denbora. Hilaren 19an, berriz, haurrentzako literatur lehiaketako —euskaraz— sariak banatuko

dituzte, arratsaldeko bostetan, udaletxeko areto nagusian.

Apirilaren 21ean Barañaingo Harizti dantza taldeak bere ikuskizuna aurkeztuko du arratsaldeko bostetan Hernanin. Dantzak ezezik, antzerkiak ere izanen du lekuri Barañaingo kultur egitaraua. Hilaren 24an, hain zuzen, Retablo de Figurillas taldeak *Las aventuras de Kurru-tako* antzeztuko du udaletxean. 27an, azkenik, jaieguna ospatuko dute herritarrek.

Bestalde, apirilaren 16ra bitartean, holoграфия erakusketa ikusgai izanen da Barañaingo Kultur Etxean. Isladapen, transmisio eta grabatutako holo-gramek osatzen dute erakusketa bitxi hau. x

Agoitz

Agoizko Hiria Poesia Lehiaketa antolatu du Bilaketa taldeak

■ Lanak aurkezteko epea ekainaren 16an bukatuko da

Erredakzioa / Iruñea

BILAKETA Agoizko kultur taldeak Agoizko Hiria Nazioarteko Poesia Lehiaketaren XX. ekitaldia antolatu du. Parte hartu nahi duten egileek gutxienez hamalau bertsoko olerkiak idatzi beharko dituzte, 60koak gehienez. Gaia eta egitura norberak aukera ditzake.

Olerkien bost kopia aurkeztu beharko dituzte partehartzaileek. Sinaduraren ordeztu leloa jarri behar dute, gainera. Beste kartazal batean, itxita, izen-abizenak, helbidea eta telefonoa idatzi beharko dute egileek. Lanak aurkezteko epea ekainaren 16an bukatuko da. Francisco Indurain kaleko 12.ean Bilaketa kultur taldeak duen egoitzara bidali behar dira olerkiak (31.430 posta kutxatila).

Epaimahaiak urrian emanen du argitara irabazlearen izena. Honek, 600.000 pezetako saria eskuratuko du. Sariaren banaketa, berriz, azaroan, bigarren hamabostaldian, izanen da. Agoizko Hiria Nazioarteko Poesia Lehiaketan parte hartuko duten obrak ez dituzte itzuliko antolatzaileek eta irabazlearen izena argitu eta hamar egunera desagertaraziko dira. x

Noain

Aste Magikoa antolatu du Etxe Zaharra Kultur Patronatuak

■ Zirko Ttipiak ikastaroa emanen du

Erredakzioa / Iruñea

NOAIN-GO Etxe Zaharra Kultur Patronatuak Aste Magikoa antolatu du, iaz bezala. Datorren asteartean hasi eta ostiralean bukatuko da, haurrak oporretan direla aprobetxatuz. Ekitaldian zirkuaren ikuskizuna aukeratu dute antolatzaileek Aste Magikoaren ardatz. Ikastaroa Zirko Ttipia taldeak emanen du.

Etxe Zaharra Kultur Patronatuak zirkuaren berezko izpiritua berreskuratu nahi du datorren astean egingen dituzten ekitaldien bidez, ardura-dunen ustez, «telebista eta zinema baitira zirkuaren behe-rakadaren erantzule».

Prestatu duten programaren barruan, zirku tailerrak egingen dituzte. Besteak beste, malabarismoak nola egin eta tresnak nola erabili ikasiko dute haurrek, baita akrobazia txikiak ere. x

Gazteria sutan, giroa bero

Azken egunotan izandako gertaeren haritik, kaleko istiluak eta biolentzia eztabaidagai

Joan den astean Iruñean gertatuek sortutako zalapartak hamaika iritzi, orri eta elkarrizketa sortu ditu han eta hemen. Beste zenbait istilurekin alderatuta, jauzi nabarmena izan dela ezin uka. Batzuk kexu dira komunikabideek ondorioei soilik erreparatzen dietelako, baina giroa hain gaiztotuta izanda, ezinbestekoa dirudi gaiari heldzeak. Horretan saiatu gara batzuei eta besteei galdetuz.

Ana Unanue - Alberto Barandiaran
Iruñea

ASTELEHENETAN usadio bihurtu da Iruñeko Udaletik asteburuko gerra parte jasotzea. Dagoeneko ez da inor izutzen kontainer batzuen erreketagatik, edo Udaletxe plazako kutxazain horren txikizioagatik. Joan den asteko gertaerek, baina, kezka bizia eragin dute, batez ere izan dituzten ondorioengatik: auto kontzesionario oso bat txikituta, bi villavesa erreta, langileak ere erreta, atxilotetak katean, espetxeratzeak, tratu txarrak... Eta giroa gaiztotuta, haustura gero eta handiago den sentsazioa, jarrerak muturreratzen ari diren konstatazioa. Gehienak ados daude: irtenbideren bat bilatu behar zaio egoerari. Gaitzarentzat botikak nahiko desberdinak dira ordea.

Kezka giro honen islada garbia izan zen auto kontzesionarioaren kontrako eraso izan eta hiru egunera Burlatako Udalak egin zuen udalbatzarra. Talde guztiek —HBk izan ezik— ekintza salatzeke mozioa onartu zuten, eta bi zinegotzi abertzaleek euren jarreara azaldu behar zuten unean, han zeuden Lipautoko langileak oihuka eta irainka hasi ziren hitza galaraziz. «Horrela defenditzen duzue Euskal Herria?», galdetu zien horietako batek. «Guk kartzelan egon behar izan dugu zuek hor eser zaitezten, eta horrela erantzuten duzue?». Hitz zuzenak, garbiak. Koldo Romeo eta Aingeru Mikeo zinegotziek ez zuten arrapostu emateko beta ere izan, udaletxetik aldegin zutelako langileek.

«Gu ez ginen udaletxera joan kondena baten eske», azaldu du Koldo Argos Lipautoko langileen batzordeko buruak, «badakigulako ez dutela hori egiten, baina, ez dakit, esaldi bat, 'sentitzen dugu' bat, hori nahi genuen. Hitz hartu eta presoen egoera hasi ziren azaltzen... Langileen barruan batzuk kontzientziatuta daude horretaz, eta ados gaude hori salatzeke, baina ez genekien zer gertatu behar zuen gure lanpostuekin... ez genuen hori entzun nahi». Egun gogorak izan



Joan den asteburuan Txantrean erretako villavesa.

EFE

dira hauek Burlatako enpresako langileentzat. Tailerra arras txikituta, lortu dute azkenean lan erregulazioa sei hilabeterako, eta badirudi enpresak beste tailer bat eraikiko duela Burlatan bertan. Batzuek eta besteek erabiliak izan diren sentsazioa, baina, ezin aldentu. «Nik esan nuen baten batek oso ongi interpretatu duena: HBri botoa emana niola, eta azken aldia izango zela. Ez dakit azkena izango den, ideiak ez dizkidatelako erre, baina ez nago ados egiten ari denarekin. Horrela ez da ezer lortzen, ideien gainean lohi gehiago botatzea baino ez, eta gero aprobetxatu egiten dute». Tailerrarekin «bigarren Alcasser kasua» egin nahi izan dutela dio, «Nieves Herrero buruan», eta beste Alditrans bat izateko proposamenak baztertu egin dituzte arraso. «Nik errespetu osoa diet lazokoei», azaldu du Argosek, «baina ez naiz inoiz horrelako kontzentrazio batera joan, Gestoretakoek antolatzen duten horietara joan ez naizen bezala, ez zaidalako ez bata eta ez bestea ongi iruditzen. Bada arazoari soluzioak bilatzeko mila bide, eta horretarako lan egin behar da». Langileen arteko elkartasuna falta izan du, hala ere. «LABek pribatuan esan duena publikoki ere esan beharko zukeen. Egina beharko zukeen jada».

ELako militantea da Argos, «euskaltzalea eta abertzalea», bere hitzetan, sindikalismoan urte franko emana. Gehiegi, borroka mota hau ulertu ahal izateko. «Lehen ez zen lanpostuen aurka jotzen baina orain COTUPen kontra egin dute, eta horrek bereziki mindu nau, hor ez dagoelako ez enpresaririk, ez agintari politikorik... kooperatiba bat da, dirua jarri duten langileak. Zergatik egin duten? Ez dakit. Uste dut ez dutela ondorioetan pentsatzen. Egin egiten dute eta aurrera».

Borroken arteko aldea • Ez da horrelako galderak bere buruari egiten dizkion bakararra. Koldo Lakasta Iruñeko Udaleko HBko zinegotziak ere antzeman du lehengo eta gaur egungo borroken arteko aldea. «Gure garaian denok genuen lana, eta hori funtsezkoa izan da, langile zarenean gizartearen beste ideia bat duzulako. Nik ez dauzkat haiek dituzten balore berberak, lantegian bertan hartu genuen kontzientziario horregatik hain justu. Orain gazte gehienak ikasle edo langabetuak dira, eta guk zer egin dugu? Kallean jarri ditugu. Ez diegu erakutsi lanaren balioa, eta esan diegu 'gu borroka asko eginak gara', eta akonplexatuta daude. Ez dute lanik, erreprimitzen dituzte eta erantzuten dute

dakiten eran. Ez dakite besterik. Uste dut hor badugula ardura gurasook». Koldo Romeo Burlatako zinegotzia uste berekoa da. «Francoren ondorengoak dira, eta bakarrik beren garaia eza gutzen dute —jazarpen eta zapalkuntza polizia dutela gainean—. Beraz, ezin dute alderatu igarotako garaiekin. Guk antzeman dezakegu aldaketa —euskararen irakaskuntza, ikastolak...— eta horrek atzera egitera bultzatzen zaitu: 'tira, gauzak hobera doaz'. Baina haiek ez. Haiek ez dute ikusten egoerak hobera egin duenik».

Koldo Castañeda HBko Mahai Nazionaleko kidearen ustez, ordea, duela hogeit urteko eta gaur egungo gazteen baloreak berdinak dira, eta egoera politikoa ere bai: «borrokatzeke moduak besterik ez dira aldatu, egoerari egokitu zaizkielako». «Errepresio honen aurrean», dio, «erantzutea zilegi da eta borroka modu guztiak era bai. Horrek dakartzan kostu guztiak onartzen ditugu».

Eta gazteek berek? Burlatako auto kontzesionarioaren aurka eraso «Euskal Herriak Espainiako eta Frantziako estatuekin duen gatazkaren ondorioa da», dio telefonoz bestaldean Jarrain ordezkarik batek, egun hauetan egin behar dituzten gazte topaketen azken prestakuntzen zurrunbiloan, «herriak zapalkuntzaren aurrean duen erantzuna». Taldekoek ez dituzte aintzat hartzen horrelako ekintzak kritikatzeko dituztenak: «Zapaltzaileek ez dute erabakitzerik zein borroka modu diren zilegi eta zein ez».

Laurak, Jarrain ibilitakoa hau

ere, beste arrazoiak ere ikusten ditu honelako ekintzen jatorrian. «Kontuan hartu behar da Euskal Herrian dugun egoera, bereziki gazteek. Langabezia dagoela, gizarte hau ez dagoela batere ongi, eta badagoela beti altxatzen den norbait. Ongi altxatzen den edo ez, hori, nola begiratzen duzun. Baina beti ere esan behar da zerbait dagoela hor, gaizki dagoena hasiera batetik, eta horrek bultzatzen duela». 21 urteko neska honen iritziz, horrelako ekintzak egiten dituztenak ondorioz jabetuta daude. «Nahiko kontziente dira, eta badakite zer egiten duten eta zergatik. Bakoi-zak erabakitzen du bere borroka modua».

Jarrerak hain urrun izanda, askoren beldurra da hitzak eta kezak «besteek» aprobetxatuko dituztela. «Nik beti izan ditut duda-muda asko ETAn sartu nintzenetik», azaldu du Lakastak. «Egiten nituen gauzak ez nituen gogoko, eta orain ikusten ditudan beste asko ere ez ditut gogoko. Baina zergatik egon ziren nire aitona eta nire aita kartzelan? Zergatik ni? Nire semea egon ez dadin. Hori da HBn dugun arrazoi nagusia. Nola lor daiteke hori? Esaten badidate langileei kalte egiten dieten gertaerak salatuz hori lortuko dugula... baina ezin dut hori bakarrik egin. ETApn-ko nire lagunak —Onaindia, Aulestia, Markiegi— horretan gelditu ziren, eta Estatuak bereganatu egin ditu. Eta arazoa ez da amaitu, baizik areagotu. Beraz, zertarako balio du nire kontraesana azalarazteak? Ezertarako ez».

LABeko militante den Juanja

Koldo Lakasta: «Gure garaian denok genuen lana, eta hori funtsezkoa da, langile zarenean gizartearen beste ideia bat duzulako»

Ez da giro

Iturralderi ere zer pentsatua eman dio Burlatako gertaerak. Horren ondorioak langile batzuek jasan izana kezkarria iruditzen zaio, baina ez da alde bakarrek analisiaren lagun. «Hipokrisia handia ikusten dut horrelako gertakizunen erabileran. Ez dut esan nahi gauza hauek larriak ez direla, baina erabilerak gatazka areagotu egiten du. Komunikabideak ez dira kalera ateratzen presoaren dispartzioari buruz jendeak zer pentsatzen duen galdezka. Uste dut bi motatako biolentzia dagoela eta ez da bata ona eta bestea txarra, baina hemen oraindik inor ez da ausartu soluzioa mahai gainean jartzen. Eta herriak hori nahi duela uste dut».

Guraso askoren kezka • Bitartean, eta IUK Burlatako udalbatzarrean aipatu zuen bezala, bi arazo mahai gainean: langileen lanpostuak eta kartzelan dauden hiru gazte, horrek guztiak familiengan dituen ondorioekin. Eta guraso askorengan hezkuntza egokia eman ote den zalantza. «Nik uste dut oraingo gazteek ez dituztela baloreak oso farbi», dio Miguel Torregrosak, Herriko Gurasoen Elkarteak, «baina arazoa da guk ere ez ditugula, bestela transmititzeko gai izango ginatekeen eta. Huts egiten ari gara horretan». Nafarroako ikasketen publikoetako gurasoak biltzen dituen koordinadora honek arazoak maiz hitz eginda daude, eta hezkuntzak ere zer esanik baduela uste dute, Torregrosak azaldu duen bezala. «Oro har, ustea dago euskaltasunarekin biktimarena egiten dela askotan, eta inguru sozialari lepo-



Jarrai gazte erakundeak deitutako manifestaldi bat.

JOXE LACALLE

ratzen zaiola egoera hori. Horrek justifikatu egiten du gero beste guztia. Horren aurrean guk proposatzen dugu euskara bera integratzea, mundu guztiak ikusi behar duela zerbait naturala dela, ez gatazkarako aitzakia. Adibidez, ikasketen integratuak —euskara-erdara— oso garrantzitsuak zirela antzematen hasiak ginen, elkarrekiko harreman handia, normaltasuna ikusten zelako. Hori nabari zen Irubiden, Burlatan, Barañainen, Iturra-

man... Baina administrazioak, sektore baten presiopean, berriro jarri ditu zentro elebakarrak, eta jarrerak muturtu egin dira berriro. Euskararentzat, akaso, aberasgarriagoa izango da zentro elebakarra, baina harremanetarako ez, kulturak, bizitzeko moduak ez direlako nahastan orduan. Egoera normalizatzeko modua izan liteke hori ere».

Egoera normalizatu. Baina nola? Ez dirudi erraza zubi egitea. Alde batekoak, ofizialtasunaren

eta «gehiengo demokratikoaren» aldekoak, eragindako kalteez bakarrik arduratzen dira. Beste muturrekoek, berriz, oso garbi daukate arazoaren arrazoiak, eta arrazoi horren izenean ondorio guztiak, latzak izanagatik ere, onartzeko prest daude.

Analisi politikoetatik haratago, espiralaren azkeneko eskailertan gaudela uste du Argosek. «Gorrotia dago bi aldeetatik, eta ez dakit zeinek izango zuen errua, baina arrautzaren eta oi-

landaren asmakizunera iristen ari gara. Gazte abertzaleak eskuinekoa den ororen aurka daude, eta eskuinekoak harro-harro dabilta polizia txalotzen, babes-ten dituztelako. Gero gazte bat harrapatu eta torturatzen dute, ateratzen dira kalera, eta dena areagotzen da. Non amaituko dugun? Inork nahi ez duen elkarren arteko gatazka batean. Hau geldiarazi beharra dago... edonola dela. Bestela euskaldunok elkarren aurrean amaituko dugu».

Gero eta zigor gogorragoak

GIRO politikoaren eta presio sozialaren ondorioz, epaileak gogortzen ari dira sabotajeetan parte hartzeaz akusatutako gazteen aurkako zigorrak. Garai batean «sutea» edo «hondamendia» leporatzen zieten. Azkenaldian, berriz, «terrorismo motzat» jotzen dituzte era honetako ekintzak, horrek dakartzen ondorioekin. Lehen, atxilotuak ez dituztela Irufean epaituko, Madrillgo Entzutegi Nazionalan baizik. Beste ondorioa jartzen ahal dieten zigorrarena da, terrorismo delituagatik hamar urtetik hogeitatera bitarteko kartzela eska dezakete eta.

Tartean ez da lege aldaketarik egon. Aldaketa presio politikoak eta sozialak eragin dute. Hala aitortzen du Joakin Galve Irufeko instrukzio epaileak: «Presio soziala nabarmena da, horrelako gertaerak gero eta ugariagoak eta larriagoak direlako». Presio horien eraginez, epaileak Kode Penaleko

174. artikulua baliatzen ari dira atxilotuak terrorismo delitua leporatzeko. Artikulu horretan terrorismo saillean sartzen dira «talde armatu baten helburuei laguntzeko» egiten diren ekintza guztiak, suteak barne. Ekintzan parte hartu dutenentzat 10-12 urteko kartzela zigorra eskatzen dute, eta eragileentzat 12-20 urtekoa.

Artikulu horrek diskrezionalitate handia uzten du. Galvek berak dioenez, «oso subjektiboa da ekintza jakin bat talde terroristak bati laguntzeko egin den ala ez zehaztea. Horretarako ekintzan parte hartu duten pertsonen helburuak jakin behar dira, eta hori oso zaila da». Zailtasuna bikoitza da, Galveren iritziz, ekintzetan parte hartzen duten gazteek ere ez omen dituzteko oso garbi beren jokaeraren ondorioak: «Gazte horiek talde terroristekin ari al dira kolaboratzen? Niri iruditzen zait kasu askotan eurek ere ez dakitela, ez di-

relako beren ekintzen ondorioez jabetzen. Askotan ez dira konturatzen ekintzak beraien nahiz besteengan izango dituen ondorioez. Eta egunen batean hilak izango ditugu».

Carlos Divar Entzutegi Nazionalako epaileak ez zuen zalantza handirik izan nonbait, Burlatan atxilotutako gazteak berehala espetxeratu zituen eta. Auto kontzesionarioaren aurkako erasoaren ondorengatik lau gazte hartu zituzten, eta horietako bi (Patxi Ruiz, 21 urtekoa, eta Eduardo Piñero, 18 urtekoa) kartzelaratu egin dituzte. Beste biak, Ibai Aienas eta Gorka Txokarro, 18 urtez azpiko izateagatik libratu ziren kartzelatik, 200.000 pezetako fidantza ordainduta. Horien deklarazioen ondorioz egun gutxira beste gazte bat, Koldo Goiena, hartu zuten preso. Hau ere espetxean dago.

Joan den astean Elizondoren beste hiru gazte atxilotu zituzten.

Hauek bi gasolina lata omen zeuzkaten autoan. Hori nahikoa izan da Iban Iparragirre eta Aitor Nuñez espetxeratzeko. Hirugarrena, Eneko Etxandi, adin txikiakoa izateagatik libratu da oraingoz. Aslehen golzean zenbait sabotajeetan parte hartu zituztelakoan atxilotu zituzten bi gazteek ere, Alberto Viedmak eta Alberto Plok, fidantza ordaindu behar izan dute kartzelara ez joateko. Duela hilabete batzuk atxilotu izan baliatuzte, seguruenik kargurik gabe askatuko zituzten, ez baitaude frogarik beraien kontra. Giroa orduan baino be- roago dago, ordea, eta beraiei suertatu zaie epaileek eskaini nahi duten irmotasun itxura sofritzea.

Kaleko indarkeriaren ondorioak pezetatan —edo, Burlatako kasuan, lanpostutan— neurtu ohi dira. Atxilotutako gazteek eta euren familiek hortik aurrera sofritzen dituztenek ez dute oihartzun bera izaten. X



Burlatako Lipautoren aurkako erasoarengatik hiru gazte daude kartzelan.

EDURNE KOCH

Xanti Begiristain

Erretzaile pasiboak

■ —Baina, oraindik erretzen jarraitzen al duzu, daukazu osasun kaskar horrekin? —ez-erretzaileak.

—Bai, arrazoi duzu alde batetik, baina badakizu, bizitza bakarra dugu eta horixe aprobetxatu behar ahalik eta hobekien; gainera, zer arrai? zerbaitengatik hil beharko dugu! ez al da hala? Ttuju, ttuju, ttuju! —erantzun dio sutsuki erretzaile amorratuak, eztulka bizian, ia-ia itotzen zen bitartean.

—Beno, zuretzat hori bizitzea baldin bada, tira ba, segi ezazu tabakoa erretzen lehertu arte. Niri kerik botatzen ez didazu bitartean, err dezakezu nahi adina, baita zeure burua ere nahi baldin baduzu —esan dio alaiki pertsona ez-erretzaileak.

Eztabaidatxo txiki honen ondoren zenbait hausnarketa egin nahi du erretzaile, ez-erretzaile eta erretzaile pasiboen inguruan. Gaur egun, nahi duenak, nahiko informazio jaso dezake arazo horri buruz, hainbat lekutatik. Erretzen duenak badaki zer-nolako arriskuak daramatzen nikotinak, erretzaile hori oso gaztetxo eta haurra ez baldin bada behinik behin.

Era berean ere, orain arte bagenekien, nola edo hala, erretzaile pasibo izatea gauza txarra zela, baina behar bada, pentsa ez genezakeena da, leku itxietan denok erretzaile bihurtzen garenean beste norbaitek erretzen baldin badu, zeinen ondorio kaltegarriak dituen erretzaile pasibo izateak.

Izan ere, orain dela egun batzuk, euskal komunikabideek plazaratu dituzte Osakidetzak Euskadiko Sei Orduetan egindako ikerketa baten emaitzak, eta ondorio horiek nahiko adierazgarri eta kezkarriak dira. Konta dezadan pixka bat zertan datzan ikerlan hori: Esan bezala, Osakidetzak Euskadiko Sei Orduetan egunean, Anoeta Kiroldegian sartu baino lehen, 10-13 urte bitarteko gaztetxo mordoxka bati gernu laginak hartu zizkion analizatze. Gauza bera egin zuten osasun zerbitzuko langileek haurrak kiroldegitik ateratakoan. Iker-


kuntza hau, jakina, gaztetxo horien gurasoen onarpenarekin egin zen denbora guztian. Eta, gorago adierazi dudan bezalaxe, emaitzak oso interesgarriak izan dira. Hor ikusi da, haur horiek atera ondoren, nikotina indizea (edo bere eragin negatiboak) askoz ere handiagoa zutela. Modu berean, indize hori larriagoa zuten etxean erretzaileak zeuzkaten haurrek. Beraz, horrela demostratzen da, Anoeta Kiroldegia bezalako leku itxietan (nahiz eta arrunt handia izan), erretzaile aktiboak ez den jendea ere erretzaile pasibo bihurtzen dela egoera horretan denbora luze samar iraunez gero. Horregatik guztia erregatik, sendagileek ohartarazten gaituzte arreta berezia jar dezagun defentsarik txikiena duten pertsonekin, erretzaile aktiboak diren toki itxi guztietan, nahiz handiak nahiz txikiak izan, erretzaile pasiboen ondorio kaltegarriak ahalik eta gutxien pairatzeko. Aparteko kontua izan beharko lukete, esate baterako, emakume haurdunek, niniek, haurrek, gaixoe, adinduek eta abar.

Hala eta guztiz ere, gizarte hau nahiko aldrebesa da, eta sarritan agertzen zaigu jende ugari gogotik erretzen pelikuletan, antzerkietan eta beste. Batzuetan esan liteke tabakismoaren aldeko apologia merkea egiten ariren ote diren.

Ni ez naiz erretzaile aktiboak eta nahiago dut horrela izan. Saiatzen naiz erretzaile aktiboak ulertzen eta errespetatzen, baina baldintza bat bakarra jartzen diet nire ondoan egoteko, alegia, ni ez nazatela bihur erretzaile pasibo, ez eta nire ingurukoak ere. Gauza bera lantokian, etxean, ibilgailuetan eta abar.

Egia esan, nik ez dakit nola moldatuko diren erretzaileak ez diren pertsonak beren maitale erretzaileekin; niri behintzat jasanezina gertatzen zait ahotik botatzen duten tabako kiratsa. Hor konpon nor bere bikotekidearekin!

Ez-erretzearekin ez da lortzen bakarrik denbora luzeagoan bizitzea baizik eta baita bizikaltate hobe ere. ■



Klasiko bitxi, arront klasiko

Joxemiel Bidador

Lhande zalgiztar handia gogoan

■ «Bere ahale bethian zen denbora beno handiago izan beita aita Lhande euskaldun suharra, ezinian kausitu delarik» zioen Lhanderengandik euskaltzaintasuna ohoregarria jaso zuen Guillaume Eppherre altzürükütarrak 1959.eko Gure herria agerkarian. Jan Pierra Basagaitz atharrastarra alargundu zenean emaztearen ahizparekin esposatzea deliberatu zuen, halabeharrez Montebideon sortu Mendikotako Menditietarren Paulina Hegirekin hots, eta lemeziko emazteak eman bi alaba harturik, Baionara jo zuen lanaren karietara tratulanta baitzen, eta bertan zen sortu Pierre, hiru semetan nagusia, 1877.eko uztailaren 9an. Aturriko hirian jaio arren arras tenore laburrean iraun zuen hartan, alta zernahi tresna erosi eta saltzeko aitzak Baztan aldera zegen aunitz bidaztietako batetan hil baitzen ondikotz, Elizondoko ostatu batean espreski, 45 urtetan, kolerak joa. Amak gorputza kontrabandoan ekarri ostean ezkonsarian bereganatua zuen Zalgizeko Apatia joan zen bost seme-iloba ahal bezal ongien haziz. Zuberera etxeko euskara izan zuten beti, eta amañik hortan zuen zer ikusirik Pierrek bere hiztegiro aitzinaldean oroitarazi zigun: «Graxi Lhande, ene amañi zenaren oharmentetan, erakatsi zeitadalarok haurrian jinkuaren othoizten uskaraz». Mauleko San Frantses ikastetxetik Baionako apezgaitegi handira joan zen, alabaina Lhande ez omen genuen halabiz dioten haietarik eta egotzi baino lehen lagundian sartzea nahiago izan zuen. 1900.ean Belgikako Rodezen egin zuena. Loiolakoaren gerizapean anitz lekuetatik ibili zen, hala nola 1905.ean euskaldunek horren ongi eta tamalez ezagutzen dugun Cádiz aldeko Puerto de Santa María frantserazko irakasle, 1907.ean Belgikako Enghien hiriko apezgaitegian maisu eta 1911.etik aitzina Hondarribia eta Hernaniko josulagunen ikastetxean. Hegoaldean euskaltzale suhar eli baten artean franko lagun egiteaz gainera, besteak beste Txomin Agirre, Azkue, Urkixo, Eleizalde, Altube, Eguzkitza, Intza, Larreko eta abar luzexka, gipuzkeraz aski ongi ikasi zuen, Lafitteren aburuz zitzaion errezena, nahiz eta Euskaltzaindia berria 1919.ean eraiki zelarik zubereraren izenean hautatua izan zen. Haatik aida batean bukatuko zitzaion hegoaldean egotea, izan ere 1921.ean karrikaratu zuen Notre souer latine, l'Espagne idazkiaren menturaz penintsulan harzara sartzea debekatu zioten espainiar agintari erzoek, bizitoki berria Parisen finkatu behar izan zuelarik. Han ezdeusen apezka izateari ekin zion. Orduan hasiko zen Notre-Dame eliz nagusian garizumako pheredikiak ogutzen, alabaina beste apez lodien bekaltzak eragindua hego ameriketarazi zuten bi urtez, hiru hilabetetan geratu zena halaz guziz. Parisen berriz 1927tik 1934ra irratigizon hardita genuen. Ameriketara ez ezik Madagaskar eta Indian ere aritu zen elestari, baina burutu lan gogorak arrautza errun zion, eta 1934.ean jauki apoplexia baten ondorioz zeharo-mendaturik ondarreko urteak Atharratzeko moja frantziskotarren etxean eman zituen, artarik eduki gabe, 80 urte zituela hil zen arte. Zalgizen dugu ehortzirik.

Gazte gaztetandik bazuen erakutsi izkiriatzeko dohai berezia eta zaletasun arrenuratsua, lan ugari utzi zigularik. Garipileko txoria, abondo gairi otzan zion berariatzko juzkoa emanez, zernahi gisaz oraikoan euskaraz tajaturikoen xerka ez gara abiatuko baizik, hagitzez gutxiago izanda ere. Aranart eta Lafitteren lagunkidetzaz Pariseko Beachechen 1926-1934 urtetan agertarazi zuen Dictionnaire basque-français famatuaz lekot, eta azken horrek zerrendatua hontaturik, «bertsuz doi-doi bortz kobla aita Atzpuru adixkide bati buruz, hitz laxoz Xuberoko euskaraz Euskaldun ona deitu astekean zenbait berrixa, 1915.ean Baionako apezpikuaren gutun baten itzulpena, 1917.ean Curutchet aphezaren hil mezan Onizen eman mintzaldia, Uskaldun gutxiarikentako gutxiñak jalgi zuen deia, Lapurdiko mintzairan Euskara eta euskaltzainak hitzaldia, eta gipuzkeraz ondu zituen Oartzungo festetarako Gure orma zaarra sermoia eta Txomin Agirrearen heriotza zela-eta Agirre irakurgaitza artikulua bi Euskal Esnalean eta Yolanda elaberia, Donostian 1921.ean argitaratu zena, eta frantserazko La ferro-nerie d'Ameznapar liburitik itzulpen bide duguna. ■



Nafarroako banakako txapelketako zotzigarren jardunaldiko partida, 1996ko martxoaren 23an jokatu. Jesus Javier Cortes, 2.255 ELOkoa — Rafael Ruiz Escobar, 2.010 ELOkoa.

1.Zf3,g6; 2.e4,Ag7; 3.d4,d6; 4.Ac4,c6; 5.Ab3,Zf6; 6.De2,e5; 7.e5,e5.

'Ze5' egitekotan, beltzek 'Ze4' daukate, eta jarraian 'De7'.

8.0-0,Dc7; 9.Zg5,0-0; 10.f4,h6; 11.e5,De5; 12.Zf7,Gf7; 13.Af4.

'Db2' jokatu gero, txuriek 'Dc4' lukete berebiziko arriskuaz.

13....,De7; 14.Af7 xa,Df7; 15.e5,De7; 16.Ah6,Ah6; 17.Gf6,Af5.

Txuriek peoi bat irabazi dute, baina gaztelua arris- kuan daukate.

18.Dc4 xa,Eg7; 19.g4,Zd7; 20.f5,Ze5; 21.Gg6 xa,Zg6; 22.g6.

Ikus koadroa. Txurien estrategia okerra nabari da orain. Errege txuria da babesik ez duena eta salduta dagoena.

22....,Dg5 xa; 23.Eh1,Dc1 xa; 24.Eg2,Gf6; 25.a4,Ae3; 26.Dc3 xa,Eg6; 27.Dd3 xa,Eg7; 28.Zc3,Gf2 xa; 29.Eg3,Da1; 30.Dd7 xa,Gf7; 31.Dg4 xa,Eh8.

Txuriek partida utzi zuten. Eraso ez zuten behar bezala prestatu, eta kontraerasoa zorrotza izan zen.



Kongresu Xakobeoa Iruñean

Datorren astean, apirilaren 9 eta 13a bitartean, Donejakue Bidearen Lagunen Elkarteak antolatua

Bederatzigarren aldiz Kongresu Xakobeoa egingen du Donejakue Bidearen Lagunen Elkarteak datorren astean —apirilaren 9tik 13ra— Iruñeko planetarioan, *Dakitenak ibil daitezela, dabilzanek jakin dezatela* lelopean. Donejakue bidearen filosofia aztertu ezezik, elkartearen zeregina ere eztabaidatuko du te kongresuan.

Eduñe Elizondo / Iruñea

DATORREN astearte eta larunbata bitartean, Kongresu Xakobeoa egingen dute Iruñeko planetarioan. Bertan bilduko dira Donejakue Bidearen Lagunen Elkarteak kideak, azken zortzi urteetan bezala. Aurtengo ekitaldiak, elkarteak osatzen duten hainbat lurraldetako —Donejakue bideak ukitzen dituenak— 570 kideren artean esperientziak trukatzeko bultzatu nahi du. *Dakitenak ibil daitezela, dabilzanek jakin dezatela* aukeratu dute antolatzaileek aurtengo lelo.

Jesus Tanco Nafarroako Donejakue Bidearen Lagunen Elkarteak lehendakariak azaldu digu leloaren esanahia. «Bada Donejakue bidea aztergai hartu duen jende anitz baina bidea sekula santan egin ez duena, eta aldeantiz, bidean askotan ibili baina bere historia eta ondare kulturala ezagutzen ez dituenak. Gure asmoa, beraz, dakitenak ibil daitezela eta dabilzanek jakin dezatela da». Halaber, Garsen dagoen Santxo Handiaren zubiaren irudia aukeratu du Nafarroako elkarteak kongresuko sinbolotzat: «Funtsezkoa izan da bidean. Gainera, beti zubi berriak egiten ari gara, Iruñea eta Santiago artean, ibiltzen direnen eta dakitenen artean, beraz, irudi polita dela uste dut».

Kongresuaren edukinari dagokionez, hiru zati bereizi dituzte antolatzaileek. Lehenengoan, Donejakue bidearen oinarri eta hastapenez, «bere filosofiaz, finean», ariko dira elkarteakideak. Bigarrenean, bideko kultura hartuko dute mintzagai, eta hirugarrenean, berriz, Donejakue Bidearen Lagunen Elkartearen betebeharrak eta funtzioa eta Administrazioarekin eta beste erakundeekin dituen harremanak aztertuko dituzte.

Donejakue Bidearen Lagunen Elkarteak dituen zereginak buruz, argi eta garbi mintzatu zaigu Jesus Tanco: «Bidea bultzatu behar dugu». Horretarako, hainbat ator jorratzen dituzte. Alde batetik, bidea egiten ari diren erromesentzat aterbe sare egokia osatzea dute helburu. Ildo bereetik, «bidea egiten ari den orok ahalik eta informazio osatuena izan behar du eskutan», azpimarratu du Jesus Tanco, eta zeregina hori ere bere gain hartu du elkarteak.

Bide frantsesa ezagunena bada



Santiago doan bide frantsesak Orreagan du sarreretako bat.

ARTXIBOKOA

ere —bi sarrera ditu, bata Somportetik eta bestea Orreagatik. Ostabaten ere, hiru bide bat egiten dute—, berau osatzen duten beste hainbat agertuz joan dira, Ebroko bidea —Erribera zeharkatu ondoren Logroñon egiten du bat bide frantsesarekin— edo Baztango bidea —Baionatik Iruñera doana— kasu. Bide hauek guztiak ezagutzera eman

nahi ditu Nafarroako Donejakue Bidearen Lagunen Elkarteak, «bide horiek ongi zehaztu eta, era berean, erromesak aukera gehiago izan dezan».

«Denentzako lekua dago Donejakue bidean» • «Donejakue bidea ez da historiaren fosila, egun indarrean dagoen fenomeno baizik, jende asko eta asko-

ren interesa pizten duena», azpimarratu du Jesus Tanco bidearen filosofiari buruz galdetzean. Bere ustez, Erdi Aroan erromeriak egiteko zeuden arrazoiek bizi-bizirik diraute gaur egun, «eta leku askotan herriaren erlijioa suna adierazteko egiten diren erromeriak dira horren adibide».

Tanco onartu duenez, hala ere, «mundu guztia errentzat dago

lekua Donejakue bidean» eta arrazoi asko daude erromesak bidean jartzeko: «Batzuek bidearen zentzu izpiritualak erakartita egiten dute, beste batzuek kulturalak, kirola egiteagatik beste batzuek...» Arrazoi hauek guztiak biltzen dituzten hiru ezaugarri azpimarragarri ditu Donejakue bideak Jesus Tancoaren aburuz: «Izpiritualtasuna, europartasuna eta baita abentura ere».

Bi Urte Santuren artekoa izanen da datorren astean Donejakue Bidearen Lagunen Elkarteak Iruñean egingen duena, 1993 eta 1999 artekoa, hain zuzen. Azken hau izanen da milurtekoaren azken Urte Santua. Hori dela eta modu berezian ospatu nahi dute elkarteakideek. Ordurako, adibidez, aterbe sarea hobetu eta bidea bera bultzatu nahi dute, «orain arte egin duguna baina bitarteko gehiagorekin». Bideari buruzko hitzaldi zikloak ere antolatuko dituzte, ziurrenik.

Azken urteetan Donejakue bideak bizi izan duen gorakadak bere horretan jarraitzen badu, erromesak behintzat ez dira faltako 1999ko Urte Santuan. «X. mende aurretik Santiago apostoluaren hilobia aurkitu zuten hasi zen erromeria. Baziren beste batzuk ere baina Donejakue bidekoak gehiago iraun eta finkatu egin zen». XV. mendetik aurrera behera egin zuen erromeriak: «Batetik, Estatuaren arteko mugak agertzen dira eta, bestetik, erreforma protestanteak ere izan zuen eraginik. Azkenik, *Mundu Berria* aurkituta, jende askok jotzen du bertara». Tanco azaldu duenez erromeriak gorabehera anitz bizi izan ditu geroztik—mendetan zehar. «Egunoa garai ona da, golan da berritua. Mota askotako jendea biltzen da urtero Donejakue bidean, gazte eta zaharrak, denetarik». ✱

Hitzaldiak eta erakusketak

DATORREN asteartean —hilaren 9an—, Millan Bravo Lozanoen hitzaldia izanen da IX. Kongresu Xakobearen lehenena. Bideari buruzko kontaktuzun handiak izenburuko hitzaldia eskainiko du, arratsaldeko zazpi eta erdiak inguruan, irekiera ekitaldia egin eta kongresua aurkeztu ondoren. Jardunaldiak, beraz, biharamunean, asteazkenean, hasiko dira.

Lehendabiziko jardunaldian Donejakue bideko erromeriaren oinarriak izanen dituzte aztergai. Braulio Valdiviesok *Herri erlijioaren eta erromeriaren ezaugarriak garai ezberdinetan*. Donejakue bidearen gorakada *Erdi Aroan eta egungo berpizkundean* izenburuko hitzaldia eskainiko du asteazken goizean. Goizean ere, Alejandro Uli Donejakue bideko erromesaz ariko da. Arratsaldean, berriz,

◆ Donejakue bideko

erromeriaren zentzu unibertuala aztertuko du Jaime Garciak. Egun berean, arratsaldeko zortzietan, Zangozako Santa Maria elizako atea oinarritzat hartuz, erromanikoaren sinboloei buruzko hitzaldia eskainiko du Jaime Cobrerosen Iruñeko Kutxako Hitzaldi aretoan.

Ostegunean kongresuko bigarren jardunaldia hasiko da, *Bidea eta kultura* izenburupean. Hasteko, goizeko hamarretan, Luis Monreal Tejadak erromeriari buruz dauden ikerketen berri emanen du. Ondoren, Donejakue bideak Europako kultura osatzeko izan duen garrantzia aztertuko du Victor Manuel Arbeloak. Arratsaldean, berriz, ikerketa xakobeoen egungo egoera izanen du mintzagai Angel Martinek. Zortzietan, Iruñeko Kutxako aretoan, Frankfurt Maine inguruko Donejakue bideko erromeriaren azternei

buruzko hitzaldia eskainiko du Barbara E. Preuschoffek.

Ostiralekoa izanen da hirugarren jardunaldia, Donejakue Bidearen Lagunen Elkartearen zereginari buruzkoa, alegia. Goizeko hamarretan, gaiari buruzko ikuspuntu historikoa azalduko du Jose Carlos Rodríguez. Honen ondoren, Bidearen Lagunen Elkartearen eta Administrazioaren arteko harremanaz ariko da Jose Antonio Corriente eta, arratsaldean, Nafarroan elkarteakideen lehendakaria den Jesus Tanco hainbat talderen arteko trukeari eta elkarlanari buruz mintzatu da. Ostiraleko hitzaldiak, azkenik, Donejakue bideko ikonografia aztertuko du, Hubert Jacomet izanen da hizlari Iruñeko Kutxan.

Larunbata izanen da kongresuko azken eguna. Goizeko hamarretan meza entzuten dute partaideek

San Saturninoren elizan. Herru Santiago abesbatzak hartuko du parte. Hamaitan Nafarroako Museoa bisita egingen dute eta arratsaldeko lau eta erdietan, berriz, Iruñeko Gotorlekuan prestatu duten Donejakue bideari buruzko maketa erakusketak ikusiko dute. Francisco Gonzalezek maketa dira Iruñeko Udalak Nafarroako Base-ritarren Kutxaren laguntzaz antolatu duen erakusketak honetan ikusgai.

Honetaz gain, hala ere, izanen da kongresuak iraunen duen bitartean beste erakusketarik ere. Planetarioan bertan, hain zuzen ere, xakobeak gaitzat duten liburu, zigilu, argazki eta beste hainbat obra ikusgai izanen dira. Halaber, Kongresu Xakobearen parte hartuko duten guztiek Esne Bideari buruzko proiektzioa ikusi ahal izanen dute, egunero arratsaldeko seieta, planetarioan.

* **Luisa Etxenike** ♦ Idazlea

«Distantzia luzeetan galdu egiten naiz»

Luisa Etxenike idazle donostiarrak 'Efectos secundarios' elaberria aurkeztu zuen joan den asteartean Iruñean. Oraingoz azkena eta laugarrena duen liburu honetan, bi emakume eta gizonezko batek osatzen duten maitasun triangelua aurkezten du Etxenikek. Desioa eta askatasuna hartu ditu gaitzat idazle donostiarrak.

Edurne Elizondo / Iruñea

IPES-EN egoitzan egin zuen Luisa Etxenikek bere liburuaren aurkezpena. IPESen aski ezaguna da idazle gipuzkoarra, literatur tailerra baitauka bertan. 27 ikaslek entzuten dituzte egun idazlearen azalpenak.

■ Bi emakume eta gizonezko batek osatzen duten maitasun triangelua da zure azken elaberriaren ardatza. Zer-nolako pertsonaiak dira, zer-nolako da istorioa?

Elkarren artean oso harreman estua dute Laura, Maritxu eta Joaquín hiru pertsonaiak. Laura eta Joaquín ezkondata daude, ongi ezkondata gainera, elkar maite dute. Maritxuk eta Laurak ere bikotea osatzen dute, elkar maite dute. Une batean, Maritxuk minbizia duela jakinen du. Horren ondorioz, hiru pertsonaiak aurrez aurre izanen dira. Laurak Maritxurekin duen harremanaren berri emango dio senarrari, ordura arteko oreka apurtuz. Egoera berriari aurre egin eta zoriona bilatzen saiatuko dira.

■ Zoriona pertsonaiek eskura duten aukera dela aipatu duzu liburuaren aurkezpenean. Askatasunaren ideia hori, liburu honen ezaugarria ezezik, zure obra guztiaren ezaugarria da?

Nahiz eta pertsonaiek beti dute aukerak, zure pertsonaiek beti dute aukerak. Aukera bat ere ez dute hautatzen dute, ba-



Efectos secundarios da Luisa Etxenikeren azken elaberria.

JOXE LACALLE

taren eta bestearen ondorioak zein diren jakinik. Begirada atzera botatzen badut, ideia hori nire liburu guztietan dagoela uste dut, nahiz eta idatzi nituen horretaz ez jabetu. Silverio Girón y otros cuentos, adibidez, konprometzu politiko eta soziala izan zen. Baina orain konturatzen naiz nire pertsonaiek pasioa aukeratzeko ahalmena dutela beti, hau da, zoriona aukeratzeko den gauza dela uste dute guztiek, baita lehen liburu hailetako pertsonaiek ere.

■ Ipuinek osatzen zuten zure lehen liburua. Azken hau, berriz, oihartzun poetikoa duen elaberritzat jo dute. Zein jenero duzu gogokoena?

Gaur egun zaila da jeneroek hitz egitea, testuez hitz egiten da gaur

egun. Estilo soila dut nik gogoko. Hiru hitz erabili ordeztu bakarra erabiltzen baduzu, hitz bakar horren edukia askoz aberatsagoa izan behar du. Hitz horri ematen diozun balioak, nire ustez, zerikusia du poesiak erabiltzen dituen bidezidorekin. Fondoko idazlea baino, abiadurako idazlea naiz. Idazkera trinkoa gustatzen zait niri, gitarraren hariak bezalakoa, mugimendu txikienaren hotsa ateratzen dutenak. Distantzia luzeetan berehala galtzen naiz.

■ Ipuina izan daiteke, beraz, zure estiloarentzat jenerorik egokiena?

Gero eta gusturago idazten ditut ipuinak, asko gustatzen zait duen tentsioa. Literatura esaten duzunaren eta sujeritzen duzunaren artean dago, esaten duzunak eta isiltzen duzunak osatzen dute istorioa. Eta hori guztia, ipuinean antzematen da honekien.

■ IPESeko Emakumearen Ikasketak deritzon departamentu-

ko kide zara. Emakumeen alorrean garatzen duzun lanak bala du eraginik zure testuetan?

Emakumeen literatura asko irakurri dut eta asko aztertzen dut. Hor dagoen tradizioa da, eta hala den neurrian, eragina du niregan, edozein idazleren lanean tradizio jakin baten barruan egoiteak eragina duen bezalaxe. Emakumeek idatzitako obrak hartzen dituen tradizioaren barruan nago ni, tradizio horren barruan idazten dut nik. Tradizio biderkatu bateko kide naiz eta hori asko gustatzen zait.

■ Emakume idazleak orain zortzi urte Donostian biltzen hasi ziren urtero egiten dituzuen topaketetan. Zein da emakumeek idatzitako literaturaren egoera egun, Euskal Herrian?

Nik egiten ditudan gauza guztiaren artean aberasgarrietakoa da Emakume Idazleen Topaketak. Orain zortzi urte sortu ziren eta egun oso finkatuta daude. Topaketa hauetan argi gertatzen da Euskal Herrian emakume

s o s l a i a

Donostian jaioa da Luisa Etxenike. Literaturarekiko zaletasuna, askori bezala, haurra zenean piztu zitzaion. «Olerkiak idazten nituen hasieran, oso intimoak».

Guatemalara gazte garaian egindako bidaietan jabetu zen literatura zaletasuna baino gehiago zela beretzat.

x

'Silverio Girón y otros cuentos', 1986. urtean kaleratu zuen bere lehen liburuaren oinarria. hain zuzen, Guatemala berdea, hango egoera politiko eta soziala. Haren ondorengorik, 'Querida Teresa' idatzi zuen 1988an eta 'Historia de amor de Margarita Maura' 1992an.

x

Idazleaz gain, orain zortzi urte Donostian egiten hasi ziren Emakume Idazleen Topaketak antolatzen ditu Luisa Etxenikek; beste hainbat emakume eta idazlerekin batera. Emakumeek idatzitako literaturaren aditua da, baita Zuzenbidean lizentziatua ere.

«Literatura esaten duzunaren eta sujeritzen duzunaren artean dago, esaten duzunak eta isiltzen duzunak osatzen dute istorioa»

P A N E
LUCRANDO

ZALDI EROA

